

**Hauteskundeen**

# **HIZTEGIA**



**KULTURA SAILA**

Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza

**DEPARTAMENTO DE CULTURA**

Viceconsejería de Política Lingüística

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2012

Lan honen bibliografia-erregistroa  
Eusko Jaurlaritzaren Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:

**<http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteca>**

Argitaraldia: I.a, 2012ko iraila

Ale-kopurua: 1.500 ale

© argitaraldi honena: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Internet: [www.euskara.euskadi.net/euskalterm](http://www.euskara.euskadi.net/euskalterm)

Inprimaketa: XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX

ISBN: XXXXXXXXXXXXXXXX

Lege gordailua: XXXXXXXXX

## HITZAURREA

**H**IZKUNTZA EROSO eta erraz hitz egin eta erabiliko bada, baliabide eta tresna egokiak beharrezkoak dira, eta eginkizun horretan leku garrantzitsua betetzen dute hiztegiek. Hizkuntzak etengabe aldatzen dira bizirik badaude, garai eta behar berrietara egokitzeko, eta, horrenbestez, hizkuntza baten modernizazioaren eta eguneratzearen prozesua ez da inoiz amaitzen. Horregatik, hizkuntzaren altxor lexikoa etengabe elikatu behar da, hizkuntza bera normalizatzeko batetik eta erabiltzaileen beharrei erantzuteko bestetik. Horregatik, helburu horri jarraituta argitaratzen dugu eskuartean duzun hiztegi hau, zalantzarik gabe, euskararen erabilera erraztuko duena.

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak, corpus-plangintzari eta euskararen kalitateari dagokienez, Hiztegi Batua amaitu eta argitaratzea, eta datozen urteotarako terminologia-lanaren plangintza egitea agindu zuen (EBPN VI.3.3.a).

Hori horrela, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPS) EBPNk agindutakoa gauzatzeko, hainbat ekimen jarri zuen martxan: batetik, "EUSKALTERM Euskal Terminologia Banku Publikoa" sortu zuen 2001ean; bestetik, Terminologia Batzordea eratu zuen Euskararen Aholku Batzordearen barruan.

EUSKALTERM erabilera publikoko bankua da, Eusko Jaurlaritzak bideratu eta sustatu nahi duen terminologiaren produkzioaren, ku-deaketaren eta hedapenaren muina. Banku hori metodologia eta irizpide jakin batzuen arabera eguneratu eta elikatzen da, beti ere Terminologia Batzordeak onartutako jarduketa-planak jarraituz.

Beraz, EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa etengabe elikatzen eta zabaltzen ari gara Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzatik IVAPekin lankidetzan, euskal terminologiaren normalizazioari eta zabalkundeari ekin eta eusteko. Terminologia Batzordeari dagokio, bestalde, terminologia-alorrean dauden lehenetsunak finkatzea, lan-proposamenak egin, terminologia-lanerako irizpideak ezartzea eta abar.

Lan horren guztiaren emaitza da eskuartean duzuen hiztegi hau. Hiztegia jorratzen duen eremuko erabiltzaileen premiak asetzeko baliagarri izatea nahi genuke, bai eta gure hizkuntzaren normalizazio eta eguneraketaren bidean urrats garrantzitsua izatea ere. Hiztegi hau eta honekin batera argitaratzen ditugun guztiak eguneroko jardunean erabiltzera animatzen zaituztegu guztiok, euskaldunok lexiko gero eta aberatsagoa izan dezagun gure eguneroko bizitzan ere.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko irailaren 3a

**Lourdes Auzmendi Ayerbe**

*Hizkuntza Politikarako sailburuordea*

## HIZTEGIARI BURUZKO ARGIBIDEAK

Hiztegi hau UZEI Terminologia eta Lexikografia Zentroak egin du EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa ([www.euskara.euskadi.net/euskalterm](http://www.euskara.euskadi.net/euskalterm)) eguneratzeko eta elikatzeke entitate horrek Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin (HPS) izenpetutako kontratuen barruan. Kontratuok HPSk eta IVAPek finantzatu dituzte, bi erakunde horiek sinatutako hitzarmenen bidez.

EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa da Terminologia Batzordeak finkatutako terminologia-lana zabaltzeko ardatza. Aldi berean esan behar da Terminologia Batzordeak onartutako jarduketa-planen barruan ezarritako lehenetsuen arabera eguneratzen dela Terminologia Banku Publikoa.

Euskararen Aholku Batzordeko Terminologia Batzordeak<sup>1</sup> euskarazko terminologia-lanerako finkatu zuen metodologiari jarraituta, hiztegi hau, lehenengoz, hizkuntzalariez eta eremuko adituez osatutako batzorde teknikoak aztertu eta landu zuen, Terminologia Batzordeari behin betiko proposamena luzatzeko. Normalizazio-prozesuaren azken urratsa Terminologia Batzordeak onartzea izan da.

Beraz, hemen duzue eremu honetako terminologiaren erabiltzaileei **Terminologia Batzordeak gomendatzen dien terminologia**.

---

1 176/2007 DEKRETUA, urriaren 16koa, Euskararen Aholku Batzordeari buruzkoa

### **Hiztegia erabilitako ponderazio-markak:**

(4) Termino normalizatua / gomendatua

(3) Termino onartua (baina ez lehenetsia, beste bat gomendatzen delako)

Hiztegia erabilitako laburtzapenak:

**eu** euskara

**es** español

**Sin.** sinonimoa

**Ik.** ikus

## NORMALIZAZIOA

### BATZORDE TEKNIKOA

**Juana Goizueta** (EHU)

**Cesar Gallastegi** (Deustuko Unibertsitatea)

**Reinaldo Jaio** (Herrizaingo Saila)

**Joxean Zapirain** (UZEI)

Koordinatzailea: **Izaskun Osinalde** (HPS)

### TERMINOLOGIA BATZORDEA

**Lourdes Auzmendi Ayerbe**, Hizkuntza Politikarako sailburuordea

**M<sup>a</sup> Encarnacion Echazarra Huguet**, IVAPeke zuzendari nagusia

**Ivan Igartua Ugarte**, EABko idazkaria

**Araceli Díaz de Lezana Fernández de Gamarra**, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako ordezkaria

**Maite Imaz Leunda**, IVAPeke ordezkaria

**Andoni Sagarna Izagirre**, Euskaltzaindiaren ordezkaria

**Iker Etxebeste Zubizarreta**, Unibertsitate Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxeko (UZEIko) ordezkaria

**Xabier Alberdi Larizgoitia**, Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Institutuko ordezkaria

**Ibon Olaziregi Salaberria**, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Euskara Zerbitzuaren ordezkaria

**Mertxe Olaizola Maiz**, aditua

**Alberto Atxabal Rada**, aditua

**Joseba Erkizia Itoitz**, aditua

**Miel Loinaz Beristain**, aditua

**Asier Larrinaga Larrazabal**, aditua

**Alfontso Mujika Etxeberria**, aditua

## **UZEIren LANKIDE IZAN DIREN ADITUAK**

**Itziar Lizeaga.** Hauteskunde eta Dokumentazio Zuzendaritza

**Mikel Martinez.** Hauteskunde eta Dokumentazio Zuzendaritza

**Sorne Uriarte.** Hauteskunde eta Dokumentazio Zuzendaritza



## **EREMU - ZUHAITZA**



- 1 Hauteskunde-sistema**
- 2 Hauteskunde-administrazioa**
- 3 Hautesle-errola**
- 4 Hauteskunde-prozesua**

## AURKIBIDEA



<b>Bokabularioa sailka</b> . . . . .	11
1. Hauteskunde-sistema . . . . .	12
2. Hauteskunde-administrazioa . . . . .	27
3. Hautesle-errola . . . . .	30
4. Hauteskunde-prozesua . . . . .	31
<b>Euskarazko aurkibidea</b> . . . . .	43
<b>Gaztelaniazko aurkibidea</b> . . . . .	51
<b>Erreferentzia bibliografikoak</b> . . . . .	59

# **BOKABULARIOA SAILKA**

## I. HAUTESKUNDE-SISTEMA

**AAHE**

Ik. aldi baterako atzerrian bizi den hautesle egoiliar

I

**adin nagusiko (4)**

18 urte beteak dituen pertsona. Hautesle, hautagai, hauteskunde-administratzaile, ahaldun edo artekari izateko ezinbesteko baldintza da adin nagusikoa izatea.

es mayor de edad

**AEHE**

Ik. atzerrian bizi diren egoiliarren hautesle-errolda

2

**aginduzko mandatu (4)**

Hautetsia bere hautesleen borondatea errespetatzera eta haien iritziazen arabera bozkatzera behartzen duen agindua.

es mandato imperativo

**agintaldi-etete**

Ik. mandatua etete

3

**ahaldun nagusi (4)**

Sin. diputatu nagusi (4)

Batzar nagusiek bere kideen artean hautatuko ordezkari politikoa, beste zeregin batzuen artean, Diputatuen Kontseilua zuzentzeko, foru-diputatuen jarduerak zuzentzeko eta koordinatzeko, eta gobernu-programa zehazteko eta bideratzeko ardura duena.

es diputado general

4

**alderdi-diziplina (4)**

Sin. boto-diziplina (4)

Alderdi politikoko baten zuzendaritzak ordezkari-organo batean dituen alderdikide hautetsiei inposatzen dien boto-portaera.

es disciplina de partido; disciplina de voto

5

**aldi baterako atzerrian bizi den hautesle egoiliar (4)**

Sin. AAHE (4)

Aldi labur batez atzerriko herrialde batean bizi den hauteslea, egoitza duen herrialdean bozkatzeko aukera duena.

es elector residente temporalmente en el extranjero; ERTA

6

**alkate (4)**

Udalbatza bateko burua.

es alcalde

7

**alkategai (4)**

Udalbatza bateko buru izateko aurkezten den pertsona.

es candidato a alcalde

8

**aniztasun politiko (4)**

es pluralismo político

9

**arraste-boto (4)**

Bozketa-sistema, hautesleari organo baterako baino gehiagorako hautagaiak boto bakar bat emanaz hautatzeko aukera ematen diona.

es voto de arrastre

10

**Asanblea Nazionala (4)**

Frantziako V. Errepublikan Senatua-rekin batera Frantziako Parlamentua osatzen duen ganbera. Senatuak baino eskumen gehiago ditu, eta, horien artean, lehen ministroa kargutik kentzekoa.

**es** Asamblea Nacional

**fr** Assemblée nationale

11

**atalase eraginkor (4)**

Hautagai-zerrenda batek bere lehen jarlekua eskuratzeko behar duen boto-proporzioa.

**es** umbral efectivo

12

**atzerrian bizi diren egoiliarren hautesle-errola (4)**

Sin. AEHE (4)

Aldi luze batez atzerriko herrialde batean bizi diren hautesleak biltzen dituen errola.

**es** censo electoral de residentes-ausentes; CERA

**autonomia-erkidegoko hauteskundeak**

Ik. hauteskunde autonomikoak

13

**balotaje (4)**

Sin. bi itzuliko hauteskunde-sistema (4)

Hautagaiak hautetsiak izateko boto baliodunen gehiengo absolutua lortzera behartzen dituen hauteskunde-sistema. Hautagaietako bakar batek gehiengo absolutua lortzen ez badu, boto baliodun gehien lortu dituzten hautagaien artean bigarren hauteskunde-itzuli bat egiten da.

**es** balotaje; sistema electoral a dos vueltas

14

**bateraezintasun-arrazoi (4)**

**es** causa de incompatibilidad

15

**batzar nagusiak (4)**

**es** juntas generales

16

**Batzar Nagusietako ahaldun (4)**

Bizkaiko Batzar Nagusiak osatzen dituzten eta botoa emateko eskubidea duten kideen izen historikoa.

**es** apoderado en juntas generales

17

**Batzar Nagusietako ahaldun batzarkide (4)**

Gipuzkoako Batzar Nagusiak osatzen dituzten eta botoa emateko eskubidea duten kideen izen historikoa.

**es** procurador-juntero en juntas generales

18

**batzar nagusietarako hauteskundeak (4)**

Sin. foru-hauteskundeak (4)

**es** elecciones a juntas generales

19

**batzarkide (4)**

EAEko lurralde historiko bateko Batzar Nagusietako kidea, bertan botoa emateko eskubidea duena.

**es** juntero

20

**baztertze-atalase (4)**

Ordezkaririk lortu gabe geratzeko hautagai-zerrenda batek gehienez eskura dezakeen boto-proporzioa. Boto-proporzio hori gaindituz gero, ordezkaririk bat lortuko du hautagai-zerrendak.

**es** umbral de exclusión

**behe-ganbera**

Ik. beheko ganbera

21

**beheko ganbera (4)**

Sin. behe-ganbera (4)

es cámara baja

22

**berdinketa (4)**

Hautagai-zerrenda batek baino gehiagok boto-kopuru bera eskuratzea.

es empate

23

**berrautapen (4)**

Hautagai bat kargu baterako behin baino gehiagotan hautetsia izatea. Sistema presidentzialistek berrautapenerako muga bat ezartzen dute, baina sistema parlamentarioetan hautagai bat etengabe hautetsia izan daiteke.

es reelección

**bi itzuliko hauteskunde-sistema**

Ik. balotaje

24

**bi izeneko barruti (4)**

Hauteskunde-sistema batean, bi jarleku esleituak dituen hauteskunde-eremu geografikoa.

es circunscripción binominal

25

**bigarren itzuli (4)**

es segunda vuelta; doble vuelta electoral

26

**Biltzar Nagusietako biltzar-kide (4)**

Arabako Biltzar Nagusiak osatzen dituzten eta botoa emateko eskubidea duten kideen izen historikoa.

es procurador en juntas generales

27

**boto (4)**

es voto

28

**boto anizkoitz (4)**

Hautesle bakoitzak gehienez hauta daitezkeen jarleku adina hautagai bozka ditzan, gehiengo erlatiboko edo absolutuko izen askoko barrutietan ezartzen den boto-sistema.

es voto múltiple

29

**boto bakar (4)**

es voto único

30

**boto bakar transferiezin (4)**

Gehiengo erlatiboko izen askoko barruti batean, hautesleari hautagai bakarra hautatzeko aukera ematen dion botoa.

es voto único no transferible

31

**boto bakar transferigarri (4)**

Ordezkaritza proportzionaleko formula batekin izen askoko barruti batean hautesleari hautagaiak nahiaren arabera antolatzeko aukera ematen dion botoa.

es voto único transferible

32

**boto baliagarri (4)**

Hautesleak gogokoen ez duen hautagaiari ematen dion botoa; beste arrazoi batzuen artean, barruti bateko jarlekuen banaketan edo hauteskundeetatik sortuko den gobernu-eraketan eragina izateko ematen dio.

es voto útil; voto táctico; voto estratégico

33

**boto elektronikoa** (4)

Hautesleak era automatizatuan eta gutun-azalik edo boto-paperik erabili gabe botoa emateko egiten dituen eragiketen multzoa.

es voto electrónico

34

**boto galdu** (4)

Jarlekuak alderdien edo hautagaien artean banatzerakoan inolako eraginik ez duen botoa.

es voto malgastado; voto perdido

35

**boto indartu** (4)

Baldintza berezi batzuk betetzen dituen hautesleari boto bat baino gehiagorekin hauteskundeetan parte hartzeko aukera ematen dion boto-sistema. Boto indartua da, besteak beste, boto anizkoitza.

es voto reforzado

36

**boto irisgarri** (4)

(Ikus «Braille sistema bidezko boto irisgarri»)

es voto accesible

37

**boto lagundu** (4)

es voto asistido

38

**boto metagarri** (4)

Hautesle bakoitzak hautagai bati boto bat baino gehiago eman diezaion gehiengo erlatiboko izen askoko barrutietan ezartzen den boto-sistema.

es voto acumulativo

39

**boto mugatu** (4)

Gehiengo erlatiboko izen askoko barruti batean ematen den botoa, hautesle bakoitzari barrutiaren jarleku-kopurua baino hautagai-kopuru txikiagoa hautatzeko aukera ematen diona.

es voto limitado

**boto ordinal**

Ik. ordenaren arabeko boto

**boto pertsonal**

Ik. boto presentzial

40

**boto presentzial** (4)

Sin. boto pertsonal (4)

Hautesleak hauteskunde-mahaira joanda ematen duen botoa.

es voto personal; voto presencial

41

**boto zatitu** (4)

Hautesle bakoitzari bere botoa zatitikan banatzeko aukera ematen dion boto-sistema. Botoaren zatiki bakoitza hautagaien artean bere lehenasunen arabera bana dezake hautesleak.

es voto fraccionado

**boto-diziplina**

Ik. alderdi-diziplina

42

**boto-emaile** (4)

Botoa emateko eskubidea egiaz baliatzen duen pertsona.

es votante

**botoa emateko eskubide**

Ik. sufragio aktiboko eskubide

**Braille boto**

Ik. Braille sistema bidezko boto irisgarri

43

**Braille sistema bidezko boto irisgarri (4)**

Sin. Braille boto (4)

Pertsona itsuek edo ikusteko desgaitasun larria dutenek balia dezaketen boto irisgarria; betiere, alde zurretik prozesu hori erabiltzeko eskaera egin behar dute. Boto-paper normalizatuak eta Braille sisteman idatzitako informazio-agiri bereziak jartzen dira pertsona horien eskura, botoa eman dezaten.

es voto Braille; voto accesible mediante sistema Braille

44

**caucus (4)**

Herrialde batzuetan (adibidez, Estatu Batuetan eta Suitzan), alderdi edo erakunde politiko bateko hautagaiak izendatzeko sistema berezia. Alderdi bakoitzeko hautagaien aldeko pertsonak bilera batean elkartzen dira, eta, formula proportzional baten bidez, ordezkariak hautatzen dira.

es caucus

45

**d'Hondt sistema (4)**

Jarlekuak modu proportzionalan esleitzeko formula. Sistema horren arabera, hautagai-zerrenden boto-kopuruak zutabe batean handienetik txikienera antolatu ondoren, boto-kopurua barrutiari dagozkion jarleku kopuruarekin zatitzen da, eta jarlekuak esleitzen zaizkie zatidura handiena lortzen duten hautagai-zerrendei, handienetik txikienera.

es sistema d'Hondt

**diputatu**

Ik. Gorte Nagusietako diputatu

**diputatu nagusi**

Ik. ahaldun nagusi

46

**Diputatuen Kongresua (4)**

Espainiako monarkia parlamentarioan Senatuarekin batera Gorte Nagusiak osatzen dituen ganbera. Senatuak baino eskumen gehiago ditu, eta, horien artean, gobernuko presidentea izendatzekoa.

es Congreso de los Diputados

47

**Diputatuen Kongresurako hauteskundeak (4)**

es elecciones al Congreso de los Diputados

48

**diputatugai (4)**

Espainiako Diputatuen Kongresuko kide izateko hautesleek hautets dezaketen pertsona.

es candidato a diputado

49

**elektoralismo (4)**

Soilik hauteskunderi begira egindako politika.

es electoralismo

50

**erdi-lehiazko hauteskundeak (4)**

Alderdi jakin batek irabaztera bideraturik antolatutako hauteskundeak, askatasunaren eta aukera-berdintasunaren printzipioak errespetatzen ez dituztenak. Ohikoak dira erregimen autoritarioetan.

es elecciones semi-competitivas



51

**erreferendum (4)**

Aldez aurretik proposatutako testu bati buruz sufragio unibertsalaren bidez bozketa egiteko sistema.

es referéndum; referendo

**erreferendum konstituzional**

Ik. konstituzio-erreferendum

52

**erreferendum lotesle (4)**

es referéndum vinculante

53

**erreferendum nazional (4)**

Sin. nazio-erreferendum (4)

Herrialde baten lurralde osoan egiten den erreferenduma.

es referéndum nacional; referendo nacional

54

**errollda-barruti (4)**

Udalerría banatuta dagoen errolda-unitate administratiboetako bakoitza, hauteskunde-atal bat edo gehiagoz osatuta dagoena.

es distrito censal

55

**errollda-sufragio (4)**

Botoa emateko eskubidea pertsonaltalde jakin batzuei aitortuz hauteslería murrizten duen sufragioa.

es sufragio censitario; sufragio restringido

56

**eskualde-hauteskundeak (4)**

es elecciones regionales

57

**estatutu-erreferendum (4)**

Estatutu bat edo haren erreforma bozkatzeko antolatutako erreferenduma.

es referéndum estatutario

58

**Europako Parlamentua (4)**

es Parlamento Europeo

59

**Europako Parlamenturako hauteskundeak (4)**

es elecciones al Parlamento Europeo

60

**Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak (4)**

es elecciones al Parlamento Vasco

61

**foru-diputatu (4)**

Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluko kidea.

es diputado foral

**foru-hauteskundeak**

Ik. batzar nagusietarako hauteskundeak

62

**gaitasunaren araberrako sufragio (4)**

Botoa emateko eskubidea ikasketa-maila edo gaitasun intelektual jakin bat duten hautesleei soilik aitortzen dien sufragio-mota.

es sufragio capacitario; voto de capacidad

63

**ganbera bakarrekko sistema (4)**

es sistema unicameral

64

**ganbera biko sistema (4)**

es sistema bicameral

65

**ganbera-bitasun (4)**

Parlamentua edo legebiltzarra bi ganberatan (goiko ganbera eta beheko ganbera) antolatzen duen sistema.

es bicameralismo

66

**ganberabakartasun (4)**

Parlamentua edo legebiltzarra ganbara bakarrean antolatzen duen sistema.

es unicameralismo

67

**gehiengoko hauteskunde-sistema (4)**

Jarlekuak gehiengo absolutuaren edo soilaren arabera esleitzen dituen sistema.

es sistema electoral mayoritario

68

**gerrymandering (4)**

Lehiakide bati edo gehiagori nahita mesede edo kalte egiteko moldatutako barruti-mugen diseinua.

es gerrymandering

69

**gobernuan txandakatze (4)**

es alternancia en el gobierno

**goi-ganbera**

Ik. goiko ganbera

70

**goiko ganbera (4)**

Sin. goi-ganbera (4)

Ganbera biko sistematan, sufragio unibertsal zuzenaren bidez hautetsitako ganbera.

es cámara alta

71

**Gorte Nagusiak (4)**

Espainiako parlamentua, ganbera bikoa.

es Cortes Generales

72

**Gorte Nagusietako diputatu (4)**

Sin. diputatu (4)

es diputado a Cortes Generales; diputado

73

**Gorte Nagusietarako hauteskundeak (4)**

es elecciones a Cortes Generales

74

**hainbanaketa (4)**

Sin. hainbanatze (4)

Herritarren kopuruaren eta/edo beste irizpide batzuen arabera, jarlekuak barrutietan proportzionalki banatzea.

es prorrateo

75

**hainbanaketa desbideratu (4)**

Sin. hainbanatze desbideratu (4)

Jarlekuak barrutietan proportzionalki ez banatzea, hautesle batzuen botoarekiko balio desberdina izan dezan.

es prorrateo desviado

**hainbanatze**

Ik. hainbanaketa

**hainbanatze desbideratu**

Ik. hainbanaketa desbideratu

76

**hasierako gutxieneko ordezkari (4)**

Biztanle-kopurua kontuan hartu gabe legeak hautesbarruti bakoitzari esleitzen dion ordezkari-kopuru finkoa.

es representación mínima inicial

77

**hautaezintasun-arrazo (4)**

Sin. hautatua izateko ezintasunaren arrazo (4)

es causa de inelegibilidad

78

**hautagai-zerrenda ireki (4)**

es lista electoral abierta

79

**hautagai-zerrenda itxi eta aldaezin (4)****es** lista electoral cerrada y bloqueada

80

**hautagai-zerrenda itxi eta aldagarri (4)****es** lista electoral cerrada y no bloqueada

81

**hautagarri (4)**

Hautagai izateko legeak ezartzen dituen baldintzak betetzen dituen herritarra.

**es** elegible**hautatua izateko ezintasunaren arrazoi**

Ik. hautaezintasun-arrazoi

82

**hautesbarruti (4)**

Sin. hauteskunde-barruti (4)

Hauteskundeetan hautetsi beharreko jarleku guztietatik kopuru jakin bat esleitzen zaion lurralde-zatia.

**es** circunscripción electoral; distrito electoral

83

**hautesbarruti bakar (4)**

Jarlekuak esleitzeko, lurralde osoa hauteskundeetako esparru administratibo bakartzat hartzen duen hautesbarrutia.

**es** circunscripción única

84

**hautesbarruti misto (4)****es** circunscripción mixta

85

**hauteskunde aurreratua (4)**

Legegintzaldiaren amaiera aurreratzearen ondorioz deitutako hauteskundeak.

**es** elecciones anticipadas

86

**hauteskunde autonomikoak (4)**

Sin. autonomia-erkidegoko hauteskundeak (4)

Autonomia-erkidegoetako parlamentuak edo legebiltzarrak berritzeko egiten diren hauteskundeak.

**es** elecciones autonómicas

87

**hauteskunde kantonalak (4)**

Sin. kantonamendu-hauteskundeak (4)

**es** elecciones cantonales

88

**hauteskunde orokorrak (4)**

Espainiako estatuan, Gorte Nagusietarako hauteskundeak.

**es** elecciones generales**hauteskunde partzialak**

Ik. zatikako hauteskundeak

89

**hauteskunde primarioak (4)**

Alderdi politiko bateko kideek hauteskundeetara aurkeztuko duten hautagaia bozketa bidez aukeratzeko prozedura.

**es** elecciones primarias

90

**hauteskunde-araubide orokor (4)****es** régimen electoral general**hauteskunde-barruti**

Ik. hautesbarruti

91

**hauteskunde-formula (4)**

Hautagaiek edo erakunde politikoek hautesbarruti batean lortutako botoak eserleku bihurtzeko ezartzen den eragiketa matematikoa, lege-irizpideen arabera. Adibidez, Espainian d'Hondt sistema erabiltzen da.

**es** fórmula electoral

92

**hauteskunde-gaitasun (4)**

Sin. hauteskundeetarako gaitasun (4)

es capacidad electoral

93

**hauteskunde-gaitasun aktibo (4)**

Sin. hauteskundeetarako gaitasun

aktibo (4)

Hauteslea izateko gaitasuna, nazionalitateak, adin-nagusitasunak eta ezgaitze-arrazoirik ez izateak ematen dutena.

es capacidad electoral activa

94

**hauteskunde-gaitasun pasibo (4)**

Sin. hauteskundeetarako gaitasun

pasibo (4)

Hautetsia izateko gaitasuna. Hauteslea izateko baldintza berak betetzeaz gain, hautagai izateko ezinbestekoa da hautaezintasun-arrazoirik ez egotea.

es capacidad electoral pasiva

95

**hauteskunde-kontabilitate (4)**

Hauteskunde-kanpainan zehar hautagaiek izandako diru-sarreraren jatorria eta gastuen helburua biltzen dituen sistema.

es contabilidad electoral

96

**hauteskunde-mandatu (4)**

Parlamentu edo legebiltzar batean hautetsi batek duen egitekoa.

es mandato electoral

97

**hauteskunde-muga (4)**

Sistema proportzionalan, erakunde politiko edo hautagaiek eserlekuak lortzeko estatu- edo barruti-mailan lortu behar duten gutxieneko boto-proportzioa.

es barrera electoral

98

**hauteskunde-ordezkarri (4)**

Hauteskunde-administrazioaren aurrean erakunde politiko batek duen mandataria.

es representante electoral

99

**hauteskunde-portaera (4)**

Testuinguru politikoak hautesleari eskaintzen dizkion aukeren artean bat hautatzeko eta hura adierazteko prozesua.

es comportamiento electoral

100

**hauteskunde-sistema (4)**

Eserlekuen banaketan zuzenean eragiten duen oinarrizko erabaki politikoen multzoa. Hona zein diren erabakiok: hautesbarruti-motak (izen bakarrekoa edo izen askokoa); hauteskunde- edo banaketa-formula (d'Hondt, adibidez); botoa adierazteko moduak (zerrenda irekiak, zerrenda itxiak eta aldaezinak, zerrenda itxiak eta aldagarriak) eta hautatu beharreko ordezkarri-kopurua; eta, dagokionean, zein den hauteskunde-muga.

es sistema electoral

101

**hauteskunde-sistema misto (4)**

Parlamentua edo legebiltzarra hautatzeko arau- eta prozedura-mota bat baino gehiago (normalean, gehiengo absolutuko eta ordezkaritza proportzionalako arauak) erabiltzen dituen sistema.

es sistema electoral mixto

102

**hauteskunde-sistema proporzional (4)**

Alderdi zein erakunde politiko bakoitzari eskuratzen dituen botoen araberrako jarleku-kopuru bat esleitzen dion sistema.

es sistema electoral proporcional

103

**hauteskunde-zatidura (4)**

Hauteskunde-sistema proporzional baten bidez hautatzen diren jarlekue-tako bakoitza eskuratzeko behar den boto-kopurua.

es cociente electoral

104

**hauteskunde-zozketa (4)**

Hauteskunde-administrazioko organoetako kideak era inpartzalean izendatzeko egiten den zozketa.

es sorteo electoral

105

**hauteskunde-zuzenbide (4)**

Ordezkaritza-organoen hautatzea erregulatzen duten arau juridikoen multzoa.

es derecho electoral

106

**hauteskundeak (4)**

Bozketa bidez agintari politikoak hautatzeko prozesua.

es elecciones

107

**hauteskundeetan parte hartze (4)**

es participación electoral

**hauteskundeetarako gaitasun**

Ik. hauteskunde-gaitasun

**hauteskundeetarako gaitasun aktibo**

Ik. hauteskunde-gaitasun aktibo

**hauteskundeetarako gaitasun pasibo**

Ik. hauteskunde-gaitasun pasibo

108

**hautesle (4)**

Botoa emateko eskubidea baliatu ahal izateko legeak ezartzen dituen baldintzak betetzen dituen pertsona.

es elector

109

**hautesleria (4)**

Hautesbarruti batean hauteskunde politikoetan parte hartzeko eskubidea duten pertsonen taldea.

es electorado; cuerpo electoral

110

**hautetsi (4)**

Hauteskunde bidez kargu publiko edo eginkizun publiko bat betetzeko hautatutako pertsona.

es electo

111

**herri-galdeketa (4)**

es consulta popular

112

**herri-hautapen (4)**

es elección popular

113

**herri-subiranotasun (4)**

es soberanía popular

114

**herritartasun (4)**

Herritar izateko nolakotasuna; bete-behar eta eskubide batzuk ditu berekin.

es ciudadanía

115

**inklusio-atalase (4)**

Ordezkeri bat lortzeko hautagai-zerrenda batek gutxienez eskuratu behar duen boto-proporzioa. Boto-proporzio hori eskuratzek ez du bermatzen hautagai-zerrenda batek ordezkeri bat izango duenik.

es umbral de inclusión

116

**izen askoko barruti (4)**

Hauteskunde-sistema batean, jarleku bat baino gehiago esleituak dituen hauteskunde-eremu geografikoa.

es circunscripción plurinominal

117

**izen askoko gehiengoko boto-kontaketa (4)**

es sistema-electoral mayoritario plurinominal

118

**izen askoko gehiengoko hauteskunde-sistema aniztun (4)**

Sin. taldekako boto (4)

Gehiengo erlatiboko izen askoko barruti batean, hautesleak alderdien hautagai-zerrenda itxiak hautatzera behartzen dituen boto-sistema.

es sistema electoral mayoritario plurinominal con pluralidad; voto en bloque

119

**izen askoko gehiengoko hauteskunde-sistema partzial (4)**

es sistema-electoral mayoritario plurinominal parcial

120

**izen askoko hauteskunde-sistema proportzional (4)**

Izen askoko barruti batean, jarlekuak hautagai-zerrenda bakoitzak eskuratu dituen boto-proporzioaren arabera banatzen dituen hauteskunde-sistema.

es sistema electoral proporcional plurinominal

121

**izen bakarrek barruti (4)**

Hauteskunde-sistema batean, jarleku bakarra esleitua duen hauteskunde-eremu geografikoa.

es circunscripción uninominal

122

**jarduneko gobernu (4)**

es gobierno en funciones

**kantonamendu-hauteskundeak**

Ik. hauteskunde kantonalak

123

**klibaje (4)**

Giza taldeen arteko banaketa, haiek alderdi politikoekiko duten jarrera baldintzatzen duena.

es clivaje; cleavage

124

**konstituzio-erreferendum (4)**

Sin. erreferendum konstituzional (4)

es referéndum constitucional; referendo constitucional

125

**konstituzio-erreforma (4)**

es reforma constitucional

126

**kontsulta-erreferendum (4)**

Garrantzi bereziko erabaki politikoei buruz herritar guztiei zuzendutako erreferenduma, loteslea ez dena.

es referéndum consultivo

127

**kontzeju ireki (4)**

Toki-araubide berezia; udalerrria bada, gobernatzeko eta administratzeko organotzat alkatea eta hautesle guztien artean osatutako auzo-batzarra ditu; udalerrria baino lurralde-eremu txikiagoko erakundea bada, gobernatzeko eta administratzeko organotzat auzo-alkatea eta hautesle guztien artean osatutako auzo-batzarra ditu.

es concejo abierto

128

**kontzeju-hauteskundeak (4)**

es elecciones concejiles

**legebiltzar**

Ik. parlamentu

**legebiltzarkide**

Ik. parlamentari

129

**legegintza-hauteskundeak (4)**

Parlamentua edo legebiltzarra berritzeko hauteskundeak.

es elecciones legislativas

130

**lehen itzuli (4)**

es primera vuelta

**lehendakaritza-hauteskundeak**

Ik. lehendakaritzarako hauteskundeak

131

**lehendakaritzarako hauteskundeak (4)**

Sin. lehendakaritza-hauteskundeak (4)  
Estatu bateko lehendakaria edo presidentea hautatzeko hauteskundeak.

es elecciones presidenciales

**lehentasunezko boto**

Ik. ordenaren araberako boto

132

**lehiarik gabeko hauteskundeak (4)**

Askatasun politikorik gabe egiten diren hauteskundeak, non hautesleak ez duen aukerarik gogokoen duen alderdi politikoa hautatzeko. Ohikoak dira erregimen autoritarioetan.

es elecciones no competitivas

133

**lehiazko hauteskundeak (4)**

es elecciones competitivas

134

**lurralde-erreferendum (4)**

es referéndum territorial; referendo territorial

135

**lurralde-ordezkaritza (4)**

es representación territorial

136

**mandatua etete (4)**

Sin. agintaldi-etete (4)

es suspensión del mandato

137

**Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak (4)**

es elecciones al Parlamento de Navarra

138

**nahitaezko boto (4)**

Hautesle guztiak hauteskundeetan parte hartzera behartzen dituen boto-sistema.

es voto obligatorio

**nazio-erreferendum**

Ik. erreferendum nazional

**nazioaren subiranotasun**

Ik. subiranotasun nazional

139

**nazionalitate (4)**

es nacionalidad

140

**onarpen-boto (4)**

es voto de aceptación; voto absoluto

141

**ordenaren araberako boto (4)**

Sin. boto ordinal (4); lehentasunezko boto (4)

Hautesleari hautagaiak bere lehentasunen arabera antolatzeko aukera ematen dion boto-sistema. Boto bakar transferigarria lehentasunezko boto-mota bat da.

es voto ordinal; voto preferencial

142

**ordezkari bidezko boto (4)**

Botoa beste pertsona baten bidez emateko aukera, botoa ematera joateko ezintasuna duten hautesleei legeak ematen diena.

es voto por representación; voto por delegación

143

**ordezkaritza politiko (4)**

es representación política

144

**ordezkaritza-mandatu (4)**

Sin. ordezkartzako agintaldi (4)

Hauteslearen agindura egon beharrik gabe, hautetsiari bere erabaki politikoak hartzeko askatasuna ematen dion mandatua.

es mandato representativo

**ordezkartzako agintaldi**

Ik. ordezkartzako mandatu

145

**ordezkartzako demokrazia (4)**

Herritarren borondatea haiek hautesleentzako ordezkarien bitartez bideratzen duen erregimen politikoa.

es democracia representativa

146

**parlamentari (4)**

Sin. legebiltzarkide (4)

Parlamentu edo legebiltzar bateko kidea.

es parlamentario

147

**parlamentu (4)**

Sin. legebiltzar (4)

es parlamento

148

**parlamentu autonomiko (4)**

Autonomia-erkidego baten legebiltzarra.

es parlamento autonómico

**parlamentu-agintaldi**

Ik. parlamentu-mandatu

149

**parlamentu-hauteskundeak (4)**

es elecciones parlamentarias

150

**parlamentu-mandatu (4)**

Sin. parlamentu-agintaldi (4)

es mandato parlamentario



151

**parlamentuko inbestidura-bozketa** (4)

Presidente edo lehendakari izendatua izan aurretik, hautagaiak parlamentuaren edo legebiltzarraren konfiantza duela berresteko egiten den bozketa.

**es** votación de investidura parlamentaria

152

**parlamentuko ordezkari** (4)

**es** representación parlamentaria

153

**plebiszitu** (4)

Herritarrek subiranotasunari, herritar-tasunari, botere bereziei eta abarri buruzko proposamen bat bozka dezaten aginte publikoek egiten duten galdeketari; nagusiki, izaera politikoa du.

**es** plebiscito

154

**posta bidezko boto** (4)

**es** voto por correspondencia

155

**programa politiko** (4)

Erakunde politiko batek legegintza baterako dituen helburu eta konpromiso politikoak biltzen dituen adierazpena. Programa politiko bat etor daiteke, osorik edo zati batean, gobernu eratu duen erakunde politikoaren (edo erakunde politikoaren) hauteskunde-programekin.

**es** programa político

156

**puntuazio bidezko boto** (4)

Hautesle bakoitzari hautatzekoak diren jarlekuak baino boto gehiago emateko aukera eskaintzen dion boto-sistema. Hautesleak bere lehentasunen arabera antola ditzake hautagaiak, edo hautagai bati boto bat baino gehiago eman.

**es** voto por puntuación

157

**quorum** (4)

**es** cuórum

158

**senatari** (4)

**es** senador

159

**senatu** (4)

**es** senado

**senatu-hauteskundeak**

**Ik.** senaturako hauteskundeak

160

**senaturako hauteskundeak** (4)

**Sin.** senatu-hauteskundeak (4)

**es** elecciones al senado

161

**subiranotasun nazional** (4)

**Sin.** nazioaren subiranotasun (4)

**es** soberanía nacional

162

**sufragio aktiboko eskubide** (4)

**Sin.** botoa emateko eskubide (4)

Legeak ezarritako baldintzak betetzen dituzten adin nagusiko herritarrek hauteskunde bakoitzean botoa behin emateko duten eskubidea.

**es** derecho de sufragio activo

163

**sufragio aktiboko eskubidea etete** (4)

**es** suspensión del derecho de sufragio activo

164

**sufragio berdin** (4)

**es** sufragio igual

165

**sufragio libre** (4)

**es** sufragio libre

166

**sufragio pasiboko eskubide (4)**

Hautesleek hauteskundeetan hautatuak izateko duten eskubidea; betiere, hauteskunde-legeek eskubide hori baliatze-ko debekurik ezartzen ez badiete izango dute eskubide hori.

es derecho de sufragio pasivo

167

**sufragio sekretu (4)**

es sufragio secreto

168

**sufragio unibertsal (4)**

Adin nagusiko herritar guztiei botoa emateko eskubidea aitortzen dien sufragioa.

es sufragio universal

169

**sufragio-eskubide (4)**

es derecho de sufragio

**taldekako boto**

Ik. izen askoko gehiengoko hauteskunde-sistema aniztun

170

**transfuga (4)**

Hauteskundeen arteko epean erakunde politiko batetik beste batera pasatzen den hautetsia.

es tráfuga

171

**transfugismo (4)**

es transfugismo

172

**udal-hauteskundeak (4)**

es elecciones municipales

173

**uharte-kabildoetarako hauteskundeak (4)**

es elecciones a los cabildos insulares

174

**zaticako hauteskundeak (4)**

Sin. hauteskunde partzialak (4)  
Jarleku bakar batzuk betetzeko soilik deitzen diren hauteskundeak; besteak beste, barruti batean hautagai-zerrendarik aurkezten ez denean egiten dira.

es elecciones parciales

175

**zeharkako hauteskundeak (4)**

Ordezkaritza politikoa zeharkako sufragio bidez hautatzeko egiten diren hauteskundeak.

es elecciones indirectas

176

**zeharkako sufragio (4)**

Hautesleari bere ordezkariak hautatzeko bitartekari bat izendatzeko aukera ematen dion sufragioa.

es sufragio indirecto

177

**zinegotzi (4)**

es concejal

178

**zuzenbidezko biztanleria (4)**

es población de derecho

179

**zuzeneko demokrazia (4)**

es democracia directa

180

**zuzeneko hauteskundeak (4)**

Ordezkaritza politikoa zuzeneko sufragio bidez hautatzeko egiten diren hauteskundeak.

es elecciones directas

181

**zuzeneko sufragio (4)**

Hautesleari bere ordezkariak zuzenean hautatzeko aukera ematen dion sufragioa.

es sufragio directo

## 02. HAUTESKUNDE-ADMINISTRAZIOA

182

### **adin-mahai (4)**

Hauteskundeak egin ondorengo lehen bilkuran izendatzen den behin-behineko organoa, hautetsi zaharrena eta hautetsi gazteena biltzen dituena. Ordezkeri-organoa bat eratzea da haren helburua.

es mesa de edad

183

### **Administrazioaren ordezkari (4)**

es representante de la Administración

184

### **autonomia-erkidegoko hauteskunde-batzorde (4)**

Hauteskunde-prozesua askea, irekia, lehiakorra eta berdina izango dela bermatzeko, autonomia-erkidegoek hauteskunde-administrazioa osatzeko era dezaketen organoa.

es junta electoral de Comunidad Autónoma

185

### **behin betiko hauteskunde-zerrenda (4)**

Hautesle Erroldaren Bulegoak egiten duen zerrenda, behin-behineko hauteskunde-zerrendari egindako zuzenketak gehituak dituena.

es lista electoral definitiva

186

### **behin-behineko hauteskunde-zerrenda (4)**

Udalek, kontsuletxeek, erregistro zibilek eta zigortuen eta auzi-iheslarien erregistroek emandako informazioan

oinarrituta, Hautesle Erroldaren Bulegoak urtero berritzen duen zerrenda.

es lista electoral provisional

187

### **bokal ez-judizial (4)**

Hauteskunde-batzordeko kidea, botere judizialak izendatutakoa ez dena.

es vocal no judicial

188

### **bokal judizial (4)**

Hauteskunde-batzordeko kidea, botere judizialak izendatutakoa.

es vocal judicial

189

### **erreferendum-lege (4)**

es ley de referéndum

190

### **eskualdeko hauteskunde-batzorde (4)**

es junta electoral de zona

191

### **eskualdeko hauteskunde-batzordearen ordezkari (4)**

es delegado de la junta electoral de zona

192

### **eskudun (4)**

Eskualdeko hauteskunde-batzordeetan ordezkari dezan erakunde politiko batek izendatzen duen pertsona.

es comisionado

193

### **hauteskunde-administrazio (4)**

Hauteskunde-prozesuaren eta berdintasun-printzipioaren gardentasuna eta

objektibotasuna bermatzea helburu duen administrazioa.

es administración electoral

194

### hauteskunde-atal (4)

Errolda-barrutia osatzen duten unitate administratiboetako bakoitza, hauteskunde-mahai bat edo gehiago biltzen dituen.

es sección electoral

195

### hauteskunde-batzorde

#### zentral (4)

Hauteskunde-administrazioaren organo gorena eta iraunkorra, hauteskunde-prozesua gardena eta objektiboa izan dadila helburutzat duena.

es junta electoral central

196

### hauteskunde-batzordeko

#### bokal (4)

es vocal de junta electoral

197

### hauteskunde-batzordeko

#### idazkari (4)

es secretario de junta electoral

198

### hauteskunde-batzordeko

#### lehendakari (4)

es presidente de junta electoral

199

### hauteskunde-batzordeko

#### lehendakariorde (4)

es vicepresidente de junta electoral

200

### hauteskunde-kolegio (4)

Herrialde batzuetan, zeharkako sufragio bidez ordezkari politiko jakin bat hautatzeko ardura duen hautesleen kidegoa.

es colegio electoral

201

### hauteskunde-lege (4)

es ley electoral

202

### hauteskunde-mahai (4)

Hauteskunde-atal batean hauteskunde-prozesua zuzentzen duten pertsonen multzoa; lehendakaritza-lanak egitea, ordenari eustea eta bozketaren gardenetasuna bermatzea da haren egitekoa.

es mesa electoral

203

### hauteskunde-mahaiko bokal (4)

es vocal de mesa electoral

204

### hauteskunde-mahaiko kide

#### titular (4)

es miembro titular de mesa electoral

205

### hauteskunde-mahaiko lehen-

#### dakari (4)

es presidente de mesa electoral

206

### hauteskunde-mahaiko ordezk

#### kide (4)

es suplente de mesa electoral

207

### hauteskunde-zerrenda (4)

Hautesle Erroldaren Bulegoak egiten duen zerrenda, hauteskundeetan bozka dezaketen pertsonak biltzen dituen.

es lista electoral

208

### Hautesle Erroldaren Bulego (4)

es Oficina del Censo Electoral

209

**Hautesle Erroldaren  
Bulegoaren probintzia-  
ordezkaritza (4)**

es delegación provincial de la Oficina del Censo Electoral

210

**hautesleku (4)**

Hautesleek botoa eman dezaten prestatutako lokala.

es local electoral; colegio electoral

211

**irradi-telebistako batzorde (4)**

Jabetza publikoko irradi eta telebistetan hauteskundeekin lotutako programazioa kontrolatzeko helburua duen batzordea.

es comité para radio y televisión

212

**lurralde historikoko  
hauteskunde-batzorde (4)**

es junta electoral de territorio histórico

213

**ordezkaritza gehiengodun (4)**

es representación mayoritaria

214

**probintziako hauteskunde-  
batzorde (4)**

es junta electoral provincial

215

**udal (4)**

es ayuntamiento

216

**udal-idazkari (4)**

es secretario de ayuntamiento

## 03. HAUTESLE-ERROLDA

217

**errolda-datu** (4)**es** dato censal

218

**errolda-txartel** (4)

Hautesle guztiek hauteskunde-administrazioarengandik jasotzen duten txartela, hautesle-errolan sartuta daudela eta botoa zein hauteskunde-ataletan eta -mahaitan eman behar duten jakinarazten diena.

**es** tarjeta censal

219

**errolda-ziurtagiri** (4)

Posta bidezko botoa eman ahal izateko hautesleak behar duen eta Hautesle Erroldaren Bulegoak ematen duen ziurtagiria.

**es** certificación de inscripción en el censo

220

**errolda-ziurtagiri berezi** (4)

Hauteskunde-errolan inskribatuta egoteko eskubidea duen herritar batek, hauteskunde-errolan agertzen ez bada, eskubide hori duela frogatzeko erabil dezakeen agiria.

**es** certificación censal específica

221

**hautesle-errolda** (4)

Hautesle izateko baldintzak betetzen dituzten eta aldi baterako edo behin betiko sufragio-eskubidea kendu ez zaien pertsonak biltzen dituen erregistro ofiziala.

**es** censo electoral

222

**hautesle-errolan inskribatze** (4)**es** inscripción censal

223

**hautesleen fitxategi nazional** (4)**es** fichero nacional de electores

## 4. HAUTESKUNDE-PROZESUA

224

**abstentzio** (4)

Bozketa batean parte ez hartzea.

es abstención

225

**abstentzio tekniko** (4)

Norberaren borondateetik at dagoen faktoreren batengatik botoa eman ezin geratu diren pertsonen abstentzioa. Faktore horiek izan daitezke, besteak beste, erroldan akatsen bat izatea, gaixo egotea edo beste hainbat arrazoirengatik hauteslekura joan ezin izatea.

es abstención técnica

226

**administratzaile orokor** (4)

es administrador general

227

**ahaldun** (4)

Hauteskunde-ekintzetan hautagai-zerrenda baten ordezkari gisa aritzeko hautagai-zerrenda horren ordezkariengandik ahala jaso duen adin nagusiko herritarra, eskubide zibil eta politikoak bete-betean balia ditzakeena.

es apoderado

228

**ahaldun-egiaztagutun** (4)

Indarrean dagoen legearen arabera, pertsona batek hauteskunde-prozesu batean hautagai-zerrenda bat ordezkatzeko ahalordea duela frogatzen duen akta.

es credencial de nombramiento de apoderado

229

**aldarrikatze-akta** (4)

es acta de proclamación

**aldeko boto**

Ik. baiezko boto

230

**alderdi politiko** (4)

es partido político

231

**alderdi politikoen erregistro** (4)

es registro de partidos políticos

232

**alderdi-federazio** (4)

es federación de partidos

233

**artekari** (4)

Hautagai-zerrenda bakoitzak hauteskunde-egunean mahaian egoteko eta hauteskunde ezarritako arauekin bat egiten dela egiaztatzeko izenda dezakeen pertsona.

es interventor

234

**artekari-egiaztagutun** (4)

es credencial de nombramiento de interventor

235

**artekari-egiaztagutunaren****taloi** (4)

es talón de credencial de nombramiento de interventor

**aurkako boto**

Ik. boto negatibo

236

**baiezko boto** (4)

Sin. aldeko boto (4); boto positibo (4)

es voto a favor; voto afirmativo; voto positivo

237

**banakako hautagai-zerrenda (4)**

Sin. hautagai-zerrenda indibidual (4)  
 es candidatura individual

238

**behin-behineko boto-kontaketa (4)**

es escrutinio provisional; recuento provisional

239

**bilkura-akta (4)**

Sin. saioaren akta (4)  
 es acta de la sesión

240

**boto baliodun (4)**

es voto válido

241

**boto baliogabe (4)**

Legezko baldintzak betetzen ez dituelako baliorik ez duen botoa eta, beraz, balioduntzat hartzen ez dena. Ez du baliorik izaten, besteak beste, ofiziala ez den boto-paper batekin emandako botoak, gutun-azalik gabe emandakoak, boto-paper desberdinekin emandakoak edo aldatutako boto-paperarekin edo gutun-azalarekin emandakoak.

es voto nulo

242

**boto bat baino gehiago edo botoa gaitasunik gabe ematearen delitu (4)**

es delito por emisión de varios votos o emisión sin capacidad

243

**boto negatibo (4)**

Sin. aurkako boto (4)  
 es voto negativo; voto en contra

**boto positibo**

Ik. baiezko boto

244

**boto zuri (4)**

Sufragio-eskubidea baliatu arren hautagai-zerrenda baten alde egin ez duen hauteslearen botoa. Boto zuritzat hartzen dira bai boto-paperik gabeko gutun-azal batekin emandako botoa, bai, hautagai-zerrenda irekien kasuan, zein hautagai aukeratu den adierazten ez duen boto-paper batekin emandakoa. Boto zuria boto balioduntzat hartzen da, eta, beraz, zenbatu egiten da.

es voto en blanco

245

**boto-asmo (4)**

es intención de voto

246

**boto-emaileen zerrenda (4)**

Boto-emaile bakoitzari zenbaki bat esleituz hauteskundeetan botoa ematen dutenen kontrola eramateko hauteskunde-mahaian osatzen den zerrenda.

es lista de votantes

247

**boto-eskubidea erabiltzearekin lotutako delitu (4)**

es delito relacionado con el ejercicio del derecho de voto

248

**boto-kontaketa (4)**

es escrutinio; recuento de votos

249

**boto-kontaketa orokor (4)**

Hauteskunde-eguna igaro eta handik hiru egunera dagokien hauteskunde-batzordeak egiten duen boto-kontaketa.

es escrutinio general

250

**boto-kontaketaren saio (4)**

es sesión de escrutinio



251

**boto-paper (4)**

Boto-emaiaren aukera jasotzen duen eta hautesleku bateko hautesontzian sartzen den orria.

es papeleta electoral; papeleta de votación

252

**boto-paper baliiodun (4)**

Hauteskunde-legeak ezartzen dituen baldintzak betez, hautagai-zerrenda bat hautatzeko emandako boto-papera edo boto-paper zuria.

es papeleta válida

253

**boto-paper irakurri (4)**

es papeleta leída

254

**boto-paper ireki (4)**

Ordezkaritza proportzionaleko izen askoko hautesbarruti batean, hautesleak edozein erakunde politiko edo zerrendako hautagairi bozkatzeko aukera. Hautesleari bere zerrenda osatzeko aukera ematen dio.

es papeleta abierta; panachage

255

**boto-paper normalizatu (4)**

Hauteskunde-administrazioak hautesleen eskura jartzen duen eredu ofizialeko boto-papera.

es papeleta de votación normalizada

**botoa aukeratzeko kabina**

Ik. bozketa-kabina

**botoa eman**

Ik. bozkatu

256

**bozkatu (4)**

Sin. botoa eman (4)

es votar

**bozkatzeko gutun-azal**

Ik. hauteskundeetako gutun-azal

257

**bozketa (4)**

Boto-eskubidea baliatzeko ekintza.

es votación

258

**bozketa etete (4)**

es suspensión de la votación

259

**bozketa-kabina (4)**

Sin. botoa aukeratzeko kabina (4)

es cabina de votación

260

**bozketako gutun-azal normalizatu (4)**

Hauteskunde-administrazioak hautesleen eskura jartzen duen eredu ofizialeko gutun-azala.

es sobre de votación normalizado

261

**erabaki gabeko boto (4)**

Sin. ezbaiko boto (4)

es voto indeciso

**ezbaiko boto**

Ik. erabaki gabeko boto

262

**funtzionario publikoaren dolozko delitu (4)**

es delito doloso de funcionario público

263

**funtzionario-ofizioaz abusatzearen delitu (4)**

es delito del funcionario por abuso de oficio

264

**funtzionarioaren faltsutze-delitu (4)**

es delito del funcionario por falsedad

**gehiengo erlatibo**

Ik. gehiengo soil

265

**gehiengo kalifikatu (4)**

Erabaki jakin batzuk hartzeko lortu behar den gehiengoa, gehiengo osoaren muga nabarmen gaintitzen duena.

es mayoría cualificada

266

**gehiengo oso (4)**

Emandako boto guztien erdiak baino gehiago biltzen dituen gehiengoa.

es mayoría absoluta

267

**gehiengo soil (4)**

Sin. gehiengo erlatibo (4)

Abstentzioak, boto zuriak eta boto baliogabeak kontuan izan gabe, aldeko botoak aurkako botoak baino gehiago direnean lortzen den gehiengoa.

es mayoría simple; mayoría relativa

268

**genero-kuota (4)**

es cuota de género

269

**gogoeta-egun (4)**

Hauteskunde-egunaren bezpera. Egun horretan debekatuta dago hauteskundekampainako ekintzak egitea.

es jornada de reflexión

270

**hautagai (4)**

Hauteskunde-prozesu batean hautetsia izateko aurkezten den pertsona.

es candidato

271

**hautagai independente (4)**

es candidato independiente

272

**hautagai nazional (4)**

es candidato nacional

273

**hautagai-zerrenda (4)**

Erakunde politiko batek hauteskundeetara aurkeztu ahal izateko barruti bakoitzerako aurkeztu behar duen zerrenda, hautesleek hautetsi ahal izango dituzten pertsonen izenak biltzen dituena.

es lista de candidatos; candidatura

**hautagai-zerrenda indibidual**

Ik. banakako hautagai-zerrenda

274

**hautagai-zerrendaren administratzaile (4)**

Sin. hauteskunde-administratzaile (4)

es administrador de la candidatura; administrador electoral

275

**hautagai-zerrendaren ikur (4)**

Hautagai-zerrenda baten ikur ofiziala, hauteskundeetan parte hartzeko aurkezpen-idazkian zehaztu behar dena.

es símbolo de candidatura

276

**hautagai-zerrendaren izendapen (4)**

Hautagai-zerrenda baten izendapen ofiziala, hauteskundeetan parte hartzeko aurkezpen-idazkian zehaztu behar dena.

es denominación de candidatura

277

**hautagai-zerrendaren****lurralde-administratzaile (4)**

es administrador territorial de candidatura

278

**hautagai-zerrendaren ordezkari (4)**

Hautagai-zerrenda bateko hautagaien izenean aritzen den pertsona, hautagai horien ahalordea duena hauteskunde-gaietako edozein prozeduratan parte hartzeko. Hautagai-zerrendaren ordezkariari igortzen dizkio hauteskunde-administrazioak hautagaiei zuzendutako aldaketak, idazkiak eta epatzeak.

es representante de la candidatura

279

**hautagai-zerrendaren sigla (4)**

Hautagai-zerrenda baten sigla ofiziala, hauteskundeetan parte hartzeko aurkezpen-idazkian zehaztu behar dena.

es sigla de candidatura

280

**hautagaia ordezte (4)**

es sustitución del candidato

281

**hautagaiak aldarrikatze (4)**

es proclamación de candidaturas

282

**hautagaien aurkezpen (4)**

es presentación de candidaturas

**hauteskunde-administratzaile**

Ik. hautagai-zerrendaren administratzaile

**hauteskunde-afixa**

Ik. hauteskunde-kartel

283

**hauteskunde-aldi (4)**

Hauteskundeen deialdi-egunetik hauteskunde-egunera arteko epea.

es periodo electoral

284

**hauteskunde-arloko arau-hauste (4)**

es infracción electoral

285

**hauteskunde-bandera (4)**

es banderola electoral

286

**hauteskunde-batzordearen eraketa-akta (4)**

es acta de constitución de la junta electoral

287

**hauteskunde-behatzaile (4)**

